

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Inpernua

Zubiberri-izengoitiz, «Inpernua» etxe bat da gaur egun, baina lehen baserri eta ostatu izan zen, dirudienez joan den mendeko bigarren zatian eraikia. Zubiberri inguruan lantegi ezberdinak eraiki ziren, eta eraikuntza multzo guzti honek baserriaren izengoitia hartu zuen: «Inpernua». Espainolez ere honela deitzen diote, euskal forma itzulita: «*El infierno*»

Izengoiti hau «Belen» eta «Jangoikuenia» izengoitien erantzun gisa sortua da, nire iritziz. Belen etxea Tolosa aldera 300 metro jarraituaz zegoen (1968. urtean desagertu zen Donostiako saihetsbidearen eraikuntzarekin) «Jangoikuenia» gaur egungo zapatari baserria da, eta honela (Jangoikuenia) deitzen dute orain ere auzoko adintsuek «Jangoikuenia» «Inpernu»tik 700

metro hiri erdi aldera kokatzen da, errepide nagusi zaharrearen ondoan.

Aipaturiko hiru etxeak taberna eta ostatu ziren Igandero hiruretan egiten ziren «bilerak» (dantzaldiak). Konkurrentzian bizi ziren eta zituzten izengoitiak, beren bezeroek jarritakoak izango ziren ziur aski.

JOSU TELLABIDE



Roxali Fernandez

Zubiberri, Inpernuko etxe zaharra

## Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

### Donosti

Zein zera zu,  
Urgulpean bizi zeran uso hori?  
Zein zera zu,  
Andra Marik  
maitetsu zaintzen  
zaitun hori?

Itsasoaren hots ezti,  
gau t'egun zure abesti,  
zelai, soro eta mendi,  
inguruak hain zoragarri,  
orok dauzkazu opari.  
Zein zera zu?  
Donosti!

Hermanin jaio bazen ere, bizitzaren luzeena gurean eman zuen Jose Olaizolak (1883-1969), gaztetan Santa Mariako organu jole postua lortu zuelako. Eta Donostiaren Xarmak guztiz bereganatu zuen nonbait hiriaren ederra kantatzeko hainbat abesti sortu baitzuen. Honen musika gainera oso atsegin eta sarkorra da. Koru eta otxoteetan sarri abesten dute, bakarreko lana baritonok egiten duelarik.



# CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA